



INSTRUKZIOA, 2022KO ABUZTUAREN 22KOA, SEGURTASUNENKO SAILBURUORDEARENA, ezartzeko “Fenomeno meteorologiko kaltegarriengatik abisu-sistema” (Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemak ezarri eta EUSKALMETek artikulatzen duena) izango dela aurrerantzean erreferentziazko sistema, baso-suetarako arrisku potentzialagatik abisuen zonakatzea eta alerta-maila zehazteko.

2022ko abuztuaren 1ean onartu zen 15/2022 Errege lege-dekretua, basoko suteen kontrako berehalako neurriak hartzekoa. 2022ko abuztuaren 2an argitaratu zen BOEn (184 zenbakia), eta hurrengo egunean jarri zen indarrean. Errege lege-dekretu horrek aldatu egin du Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 48. artikulua. Zehazki, artikulua horren 6. zenbakiak orain xedatuta dauka autonomia-erkidegoek zirkulatzeko eta sartzeko debeku eta muga batzuk adierazi beharko dituztela basoko suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko taxututa dituzten planetan, eta haiek aplikatu, Espainiako Meteorologia Agentziak (AEMET) emango duen informazio meteorologikoaren arabera.

Hori betetzeko egutegiari dagokionez, honakoa xedatu du Errege lege-dekretuaren lehen xedapen gehigarriak: *“autonomia-erkidegoek hartu beharreko neurri egokiak hartu beharko dituzte erkidego bakoitzean basoko suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko dituzten zerbitzuak errege lege-dekretu honetan ezarritakoaren arabera egokituta egon daitezzen, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen.”*

Alabaina, basoko suteak prebenitzeko, zaintzeko eta itzaltzeko planik ez dago idatzita, are gutxiago onartuta. Nolanahi, Euskal Autonomia Erkidegoan, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) baditu zenbait tresna foru-aldundiekin batera landuak, eta egunero zabaltzen dituzte Baso Suteen Arriskuen Eguneroko Buletinean. Buletin hori da, bere indize eta guzti (eguneko FWI, ordu

INSTRUCCIÓN DE 22 DE AGOSTO DE 2022, DEL VICECONSEJERO DE SEGURIDAD, por la que se determina el “Sistema de Avisos por Fenómenos Meteorológicos Adversos establecido por el Sistema Vasco de Atención de Emergencias y articulado a través de EUSKALMET, como el sistema referente a fin de determinar la zonificación y el nivel de alerta de los avisos por riesgo potencial de incendio forestal.

Con fecha 1 de agosto de 2022 fue aprobado el Real Decreto-Ley 15/2022, por el que se adoptan medidas urgentes en materia de incendios forestales (B.O.E. num. 184, de 2 de agosto de 2022) que entró en vigor el día siguiente a su publicación, sin que aún haya sido convalidado. Mediante este Real Decreto-Ley se ha modificado el artículo 48 de la Ley 43/2003, de 21 de noviembre, de Montes, en cuyo apartado 6 se determina la obligación de las Comunidades Autónomas de aplicar una serie de prohibiciones y limitaciones de circulación y acceso que habrán de ser establecidas en sus planes de prevención, vigilancia y extinción de incendios forestales, en función de la información meteorológica de la Agencia Española de Meteorología (AEMET).

En cuanto al calendario de implantación de estas obligaciones, la Disposición adicional primera del Real Decreto-Ley determina que *“las comunidades autónomas adoptarán las medidas oportunas para que, antes del 1 de enero de 2023, sus servicios de prevención, vigilancia y extinción de incendios forestales estén adaptados a lo establecido en este real decreto-ley.”*

Los planes de prevención, vigilancia y extinción de incendios forestales no han sido ni redactados, ni mucho menos aprobados. Sin embargo, en la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología (DAEM) dispone de herramientas trabajadas con las Diputaciones Forales que se comparten diariamente en forma de Boletín Diario de Riesgo de Incendios Forestales. El Boletín,



erdiko FWI eta ordu erdiko FWI) EUSKALMETek egunero ematen eta argitaratzen duen abisu-sistemaren oinarria. Sistema horrek EAEn lau eremu geografiko bereizita ematen ditu abisuak. Klima-eremu horietakoren baten barruan daude EAeko udalerrri guztiak, eta bakoitza zein eremutan dagoen informazio publikoa da. Gainera, abisu horiek eguneko zer garaitarako diren ere zehaztuta dago.

lido horretan, gogora ekarri behar dugu uztailaren 15ean Segurtasuneko sailburuordeak ebazpen bat eman zuela Euskal Autonomia Erkidego Basoko Suteetarako Larrialdi Plan Bereziaren larrialdi-fasea aktibatzeke eta landa-inguruneke erabilera eta jarduketak jakin batzuetarako murrizketak eta debekuak ezartzeko. Bada, ebazpen horrek zenbait neurri zehatz ere bazekartzan, eta ikusita emaitza nabarmen positiboa izan zutela, zabaldu egin ziren neurriok -errege lege-dekretuaren 6. apartatuan gerora ezarritako muga oso antzeko eta guzti-, basogintza-eremua ez ezik, beste eremu batzuk ere babesteko.

Adierazitako inguruabarrak kontuan hartuta, beharrezko jotzen da, suteen inguruko segurtasunagatik eta prebentzioagatik, Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak (LAEMZ) duen abisu-sistema erabiltzea Mendiei buruzko azaroaren 21eko 43/2003 Legearen 48.6 artikuluko berrituan jasotako debekuak aktibatzeke.

Aurreko guztia kontuan hartuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, gerorako ere, sute-arriskuko egoeretako irizpide zehatzak ezarrita edukitzeko aldera, hemen honako

que cuenta con índices (FWI diario, FWI medio horario y FWI máximo horario), es la base para el sistema de avisos proporcionado y publicado diariamente por EUSKALMET. Dicho sistema establece los avisos diferenciando cuatro zonas geográficas en el ámbito de la CAPV. A estas zonas climáticas quedan asignados los municipios de la CAPV, en una información que también goza de carácter público. E incluso se determina el periodo, dentro de la jornada diaria, para el que se establecen los citados avisos.

En este sentido, cabe recordar las medidas establecidas para esta Comunidad Autónoma el pasado 15 de julio, mediante Resolución de dicha fecha del Viceconsejero de Seguridad, por la que se activó la Fase de Emergencia del Plan Especial de Emergencias por Riesgo de Incendios Forestales de la Comunidad Autónoma Vasca y se establecen restricciones y prohibiciones para determinados usos y actuaciones en el medio rural. Las medidas que se contemplaron ofrecieron un resultado notablemente positivo y, aunque con limitaciones muy similares a las establecidas con posterioridad en el citado apartado 6 del Real Decreto ley, trascendieron el ámbito estrictamente forestal para otorgar una protección más integral.

Atendiendo a las circunstancias señaladas, se considera necesario utilizar, en aras a la seguridad y a la prevención en materia de incendios, el sistema de avisos de que dispone la Dirección de Atención de Emergencias y Meteorología (DAEM) para las prohibiciones incluidas en la nueva redacción del art. 48.6 de la Ley 43/2003, de 21 de noviembre, de Montes.

A la vista de todo lo anterior, y con el objetivo de establecer un criterios concretos ante situaciones futuras de riesgo de incendio en el ámbito de la Comunidad Autónoma Vasca, se dicta la presente

**INSTRUKZIOA:**

Lehenengoa.- “Fenomeno meteorologiko kaltegarriengatiko abisu-sistema” (Larrialdiei Aurre Egiteko Euskal Sistemak ezarri eta EUSKALMETek artikulatua) izango da aurrerantzean erreferentziatzeko sistema, basoko sutearen arrisku potentzialgatiko abisuen zonifikazioa eta alerta-maila zehazteko.

Bigarrena.- “Fenomeno meteorologiko kaltegarriengatiko abisu-sistema”k alerta laranja edo alarma gorria ezartzen badu EAeko eremu klimatikoetako baterako, larrialdi faseko EAeko Baso-suteetarako Larrialdi Plan Berezia aktibatuko da. Larrialdi-egoera hori indarrean dagoen bitartean, murrizketak eta debekuak ezarriko dira, eta egunero zehaztuko da nola aplikatuko diren (zer ordutegi eta zer abisu-maila) hurrengo egunean, zuzendariaren ebazpen baten bidez.

Hirugarrena.- Landa-lurzoruan, zoru errustikoan edo lurzoru urbanizaezinean aplikatuko dira murrizketak eta debekuak, honela:

- a) Alerta laranjako egoeran, ordu-tarte jakinetan (egunero zehaztuko da):
 - Sua erabiltzea, edo sua eragin dezaketen lanetan jardutea, hala nola nekazaritza eta basogintza ingurunean deflagrazioa, txinpartak edo deskarga elektrikoak eragin ditzaketen makinak erabiltzea.
 - Su artifizialak, petardoak nahiz bestelako piroteknia-gaiak, eta barbakoak (hauek denak baita hiri-lurzoruan ere), zuhaitz-, zuhaixka-, sastraka- edo beste edozein laborantza-motaz estalitako lurretatik 300 metro baino gutxiagora, non eta ez diren hiri-lurzoruz inguratutako tokitan egitekoak
 - Debeekatuta egongo da errekontza-motordun ibilgailuak erabiltzea baso-

INSTRUCCIÓN:

Primero.- Se determina el sistema de avisos por fenómenos meteorológicos adversos establecido por el Sistema Vasco de Atención de Emergencias y articulado a través de EUSKALMET, como el sistema referente a fin de determinar la zonificación y el nivel de alerta de los avisos por riesgo potencial de incendio forestal.

Segundo.- En los supuestos en los que el sistema de avisos por meteorología adversa del Sistema vasco de Atención de Emergencias establezca una Alerta Naranja o Alarma Roja para una de la o las zonas climáticas de la CAPV, se procederá a la activación del Plan Especial de Emergencias por Riesgo de Incendios Forestales de la CAPV en fase de Emergencia. A lo largo de la vigencia de esta situación de emergencia, se establecerán restricciones y prohibiciones cuya aplicación será concretada diariamente en lo referente al horario y al nivel de aviso, y con vigencia para el día posterior, mediante la oportuna Resolución del Director.

Tercero.- Las restricciones y prohibiciones, que serán de aplicación en suelo rural, rústico o no urbanizable, serán las siguientes:

- a) En Situación de Alerta Naranja, en las franjas horarias que se determinen diariamente.
 - Cualquier empleo del fuego, o actividades que puedan generarlo, como el uso de maquinaria en el entorno agroforestal susceptible de producir deflagración, chispas o descargas eléctricas
 - Fuegos artificiales, petardos, otros artículos pirotécnicos y celebración de barbacoas, todos ellos inclusive en suelo urbano, a menos de 300 metros de terrenos cubiertos por vegetación arbórea, arbustiva, de matorral o cualquier tipo de cultivo, salvo que se trate de enclaves que se encuentren rodeados de suelo urbano.
 - Prohibición del uso de vehículos a motor de combustión en pistas



pistetan, lursailetan eta asfaltatutako errepideetatik kanpo doazen bideetan, ez bada lanpostura edo ohiko bizilekura sartzeko edo irteteko, edo ezinbesteko beste zerbaitetarako. Debekatuta egongo da ibilgailu horiek landaretza duten eremuetatik ibiltzea, bertan gelditzea edo aparkatzea.

- Bertan behera utziko dira uztondoak, larre iraunkorrak, inausketa-hondarrak eta baso-hondarrak erretzeko emandako baimen guztiak.
 - Sutan dauden objektuak edo sutea sor dezakeen edozein material bota edo abandonatzea.
- b) Alarma gorrian.
- Aurreko murrizketa guztiak, 24 orduetan.
- c) Nolanahi, murrizketa horiek ezin diote oztopo egin lurralde historikoetako leku edo eremu zehatzetan ezar daitezkeen erregulazioei, lurralde historiko bakoitzean aktibatu diren baso-suteen aurkako plan berezietako zuzendaritzek emandako neurriak aplikatzearen ondorioz.

Laugarrena.- Arau-hausteak: ebazpen honetan jasotako debekuak ez betetzeak zehapena dakar, Larrialdiak Kudeatzeko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 27ko 1/2017 Legegintzako Dekretuaren 69. eta 70. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

forestales, parcelarias y cualesquiera otros lugares de tránsito fuera de carreteras asfaltadas, salvo acceso al puesto de trabajo o al lugar de residencia habitual y demás circunstancias de fuerza mayor. Se prohíbe atravesar, parar o estacionar estos vehículos en zonas con vegetación.

- La suspensión de todas las autorizaciones concedidas de quema de rastrojos, de pastos permanentes, de restos de poda y de restos silvícolas.
 - Arrojar o abandonar objetos en combustión o cualquier clase de material susceptible de originar incendio.
- b) En Situación de Alarma Roja.
- Todas las restricciones anteriores durante las 24 h.
- c) Todas las restricciones anteriores deben entenderse sin perjuicio de las regulaciones que puedan establecerse en lugares o zonas concretas de los Territorios Históricos por aplicación de las medidas emanadas desde las direcciones de los planes especiales de lucha contra los incendios forestales que, en su caso, se hayan activado en cada uno de los Territorios Históricos.

Cuarto.- Infracciones. Las infracciones de las prohibiciones contenidas en esta Resolución serán sancionadas de acuerdo con lo dispuesto en los artículos 69 y 70 del Decreto Legislativo 1/2017, de 27 de abril, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Gestión de Emergencias.

Vitoria-Gasteizen, sinadura digitalaren datan.
En Vitoria-Gasteiz, a fecha de la firma digital.

Rodrigo Gartzia Azurmendi
Segurtasun sailburuordea
Viceconsejero de Seguridad